

## Lekeitio tour, Lea Artibai Turismo Elkarte

**Lea Artibai turismo elkarte sortu da.**

**Eskualdeko turismo sektoreko hainbat enpresen artean sortutako elkarte da.**

**L**ea Artibai Eskualdeko turismo arloa garatzeko, bai erakunde publikoek bai enpresa pribatuek beraien ardurak eta esfortzuak batu behar dituzte garapen ekonomiko eta jasangarria lortzeko xedez. Hau dela eta, oso interesgarria jotzen da esparru bat sortzea non bildu denon ardurak turismo sektorea garatzeko orduan.

Lekeitioko Udalak, bere marketing planari jarraituz, 2005etik hona ekimen hau bultzatu du antolatutuen foro eta jardunaldietan. Honen arrazoia zera da: erakunde publikoen eskutik garatzen diren planak eta ekintzak sektore pribatuarekin batera lantzea komeni dela, turismo arloa behar den moduan garatu ahal izateko. Hain zuzen ere, 2006ko apirilaren 26an, Lekeitioko Udalak I. Turismo Jardunaldiak antolatu zituen. Bertan, Costa Brava Centre elkarteke esperientziak ezagutu ahal izan genituen, eta Mercedes Rodriguez-ek, Eusko Jaurlaritzako Turismo Administrazioeko eta Lehiakortasuneko Zuzendaria

zenak, gai honi buruz berba egin zuen. Bileran, enpresa batzuk Lea Artibain turismo elkarte bat sortzeko asmoa adierazi zuten, eta Lea Artibaiko Garapen Agentziak antolakuntza lana egiteko konpromisoa hartu zuen.

Pasa den maiatzaren 29an, Lea Artibaiko Turismo Sektorearen I. Foroa egin zen. Garapen Agentziak turismo arloan aurtengo proiektu eta asmoen berri eman zuen. Proiektu hauen artean, Turismo Sektorearen Garapenaren lan ildo estrategikoaren barne, eskualde mailako turismo elkarte bat sortzeko ekintza dago. Ekintza hau, Lekeitioko Udalak bere marketing planean proposatzen zuenarekin bat dator.

Lehen foro honen ostean, eskualdeko enpresa batzuk lehen pausuak eman nahi dituzte turismo elkarte bat sortzeko Lea Artibai mailan. Berau osatzeko turismo enpresa tipologia ezberdinak batuko lirateke: Ostatuak, jatetxeak, garraioak, turismo aktiboko enpresak eta abar.

Prozesua aurrera eramateko asmoz, inkestak bidali dira sektoreko enpresetara elkarte berri bat egiteari buruz, eta zenbait enpresak proiektuan parte hartzeko interesa adierazi dute. Urriaren 4an eginiko bileran, helburuak, estatutuak, karguak izendatu eta lehen akta egin da eta horrela "Lekeitio Tour, Lea Artibai Turismo Elkarte" sortu da. Izena aukeratzekoan, Lekeitio markak duen erakargarritasuna hartu da kontuan baina eskualdearen ikuspuntua ahaztu gabe.

Hemendik aurrera, ekintza plan bat finkatu eta elkartekideok ilusioz beteta lanean hasteko prest gaude, gure eskualdeko turismoa modu iraunkorrean garatzeko eta sustatzeko. Horretarako, gure espiritua erakunde publikoekin (eskualdekoekin, zein herrikoekin) sortu daitezken sinergiak mantentzea da. Eskualde osoko garapen ekonomikoa lortzeko elkarlanean aritu behar gara, kalitatezko turismo bat eskainiz, dauzkagun baliabideak aprobetxatuz eta gure eskualdeak duen potentziala landuz.

### Elkartearen helburuak (beste batzuen artean):

#### *Serán fines de la asociación:*

a) Lea Artibaiko eskualdean izaera iraunkorreko turismoa eta turismo kulturala bultzatzea, bertoko irudia kalitatezko turismo toki moduan bultzatu Euskal Herriaren barne.

*Promover un turismo de carácter sostenible y cultural en la comarca de Lea Artibai, impulsando su imagen como destino turístico de calidad dentro del País Vasco.*

b) Gizartean orokorrean eta bere kideen artean bereziki iraunkortasunaren kultura zabaldu, eskualdearen ondare kultural eta naturalaren gordetzearekin bateragarria izango den turismoa adierazi nahi du.

*Fomentar entre sus miembros y entre la población en general la cultura de la sostenibilidad, que se traduce en un turismo compatible con la preservación del excepcional patrimonio cultural y natural de la comarca.*

c) Elkarteko kide diren enpresen aktibitate eta interesak koordinatu beraien arteko eskaintzak eta zerbitzuak kontutan izanik.

*Coordinar las actividades y los intereses de las empresas de la asociación con el fin de favorecer las ofertas y servicios conjuntos entre estas.*

d) Bazkideen interesak defendatu eta ordezkatu erakunde publiko eta pribatuen artean.

*Representar y defender los intereses de sus socios ante las instancias públicas y privadas en que dichos intereses se hallen implicados.*

e) Lea Artibaiko eskaintza eta baliabide turistikoak komunikatzeko eta sustatzeko ekintzak eta kanpainak egin eta bultzatu.

*Promover y realizar campañas y acciones de promoción y comunicación de las ofertas y recursos turísticos de Lea Artibai.*



### Zenbait datu

Partaideak: Momentuz, eskualdeko 10 turismo enpresa: Zubieta Hotela, Akuiola Nekazalturismoa, Garro Nekazalturismoa, Suspergintza Elkarte, Metrokua Hotela, Ur2000, Ansotegi Hotela, Kurtxia Landetxea, Villa Itsaso Aparthotela eta Leagi Kanpina.

Enpresa gehiago biltzea espero da.

Esparrua: Lea Artibaiko turismo arloko enpresei zuzenduta.

Idazkaritza Teknikoa: Lea Artibaiko Garapen Agentzia.

Kontaktua: Nekane Irusta (Lea Artibaiko Garapen Agentzia),

Tel.: 94 603 41 11  
nirusta@leargarapen.org


# Jon Basaldua, Trinkete Etxea aterpetxeko arduraduna

Suspergintza Elkartek Lekeitioko Trinkete Etxea Aterpetxeko kudeaketa darama. Aterpetxeak, osatuaz aparte, hezkuntza eta kirol jarduerak eskaintzen ditu bere bezeroentzat. Haien artean, aipatzekoa da Itsas- Eskola hezkuntza programa. 2006-2007ko ikasturtean 1280 ume pasatu dira programa honetatik.

Zer da Itsas- Eskola programa?

Lekeitioko Udalak itsas ondareari lotutako programa bat garatzea eskatu zuen Trinkete Etxeko kudeaketarekin batera. Programa honen bitartez Lekeitioko arrantza mundua eta bere ingurua; teknika

eta ogibideak, lehengo eta oraingo ekonomia-eragina ezagutu ahal da.



Jon Basaldua

Honela, bisitariak bertoko itsas kulturari buruz ikasten dute, bisita eta tailer desberdinen bitartez: Playa de Ondarzal txalupa,

kofradia edo kontserba fabrikak bisitatzen dira eta itsasoari lotutako tailerrak egiten dira.

Gure ustez, Itsas- Eskola programak aukera ezinbestekoa ematen digu behe denboraldiaren okupazio tasak gehitzeko. Eskola programa izaterakoan, udaberri, udazken eta neguan, astean zehar, aterpetxea bete ahal izaten dugu. Horrela, udako jarduera osatu egiten da.

Zer eskaintza gehiago du aterpetxeak?

Itsas - Eskolaz gain, Ur2000 enpresarekin batera aventura-kirolak eskaintzen dira: piragua, eskalada, arku-tiroa, surfa...

## Bisitarien datuak

2007ko udan 20.807 bisitari pasa dira Ondarroa eta Lekeitioko Udal Turismo Bulegoetatik, 17.532 Lekeitiotik eta 3.275 Ondarrutik. Aurreko

buletinean agertzen zuten joera mantendu egiten da, eta pasa den urteko datuekin konparaturaz, bisitari gehiago hurreratu dira gure eskualdera. Jatorriari dagokionez, Euskadi, Nafarroa, Katalunia, Madril,

Frantzia, Erresuma Batua eta Alemaniatik datoz, gehienetik gutxienera.

Anekdotak modura, Yolanda Burgoak, Ondarruko turismo

bulegoko arduradunak, zera kontatu zigun:

*“Katalan bikote bi turismo bulegora etorri eta eskegita daukagun txapelarekin argazkiak ateratzen hasi ziren eta handik denbora gutxira ikusi nituen kalean buruan txapel banaz.”*

**20.807 bisitari  
pasa dira Ondarroa  
eta Lekeitioko Udal Turismo  
Bulegoetatik**



### INFORMAZIO GEHIAGO

Lea Artibaiko Garapen Agentzia  
Turismo Arloa  
Sabino Arana, 14, 48280 Lekeitio  
Tel: 94 603 41 11 • Fax: 94 603 41 13  
e-mail: nirusta@leargarapen.org  
www.learjai.com • www.leaibarra.com



**Lea Artibaiko  
Garapen Agentzia, s.a.**



Lea Ibarreko  
Udal Mankomunazgoa

**EUSKADI**  
atsegin handiz  
con mucho gusto



## Agenda ...

### TURISMO BULEGOAK

• **Lekeitioko Turismo Bulegoa**  
Lanegunak eta larunbatak: 10:30-13:30 / 16:00- 19:00  
Igandeak: 10:30-14:00  
Asteazkenak itxita  
Tel. 94 684 40 17  
turismo@lekeitio.com

• **Ondarroako Turismo Bulegoa**  
Astelehenak – ostiralak: 10:00- 14:00  
Larunbatak: 10:30-13:30 ; 16:00-19:00  
Igandeak: 10:30-14:00  
Asteazkenak itxita  
turismobulegoa@ondarroakoudala.net

### IKASTAROAK ETA JARDUNALDIAK

• **Ibilbide eta Baliabide Turistikoak Lea Artibaiko Eskuldean:** Itsasmenetik Deriok Lea Ibarreko Udal Mankomunazgoarekin batera antolatuta, ikastaroa 20 ordukoa da eta urriaren 15, 17, 22, 24, 29 eta 31 emango da, 15:00etatik 18:00etara Okamikako Industrialdean (Gizaburuaga) dauden bulego zentralerako geletan. Izen ematea: Yolanda Legarra. Deitu IMK Deriora 944 54 14 21 edo idatzi e-mail honetara: ylegarra@itsasmenetikoi.net. Ikastaroa dohainik da.

• **Lea Artibaiko II. Turismo Topaketa:** Lea Artibaiko Garapen Agentziak antolatuta, honako gai hauek landuko dira: Turismo produktuaren sorrera, Turismo enpresen elkarte eta Turismo alorrean praktika onak gidaliburua. Azaroaren 13 eta 22an izango da, 17:30etatik 19:00etara, Markina- Xemeingo Esperantza Aretoan. Izen ematea: 945218178.

• **Turismorako Gune Berriak:** Industria Turismoa eta Teknoturismoa: Debegesa Garapen Agentziak antolatuta, Debabarreneko V Turismo Jardunaldiak Eibarren ospatzen dira urriaren 24 eta 25ean. Informazio gehiago: Sara Sampetro 945218178, sara@beinke.org.

### TURISMO BALIABIDEAK ETA EKINTZAK

• **Lekeitio. Tximinoiaren I. Jardunaldi Gastronomikoak:** Urriaren 26tik azaroaren 4a arte, Lekeitioko Udalak eta zortzi jatetxek antolatuta (Meson Arropain, Batzoki, Beitia, Egaña, Goitiko, Kaia, Nerea eta Zapirain), tradizio eta kalitate handiko produktu hau dastatzeko aukera izango da. Egitarauaren barruan honako ekintza hauek batzen dira: Slow Food afaria (urriaren 26an), Sukaldea kalean (urriaren 28an, goizean, plazan) eta Dastamenaren Eskola- Escuela del Gusto (urriaren 31an, Trinkete Etxean Aterpetxean, 6-8 urteko umeei zuzenduta). Informazio gehiago: 946034111, 945218178.

• **Asics Eternal Running:** Pasa den urtean izan zuen arrakasta eta gero, azaroaren 18an Ondarroan ospatuko da berriz Eternal Running lasterketa. Mundu osoan zehar egiten den lasterketa da, eta bisitari asko erakartzen du herrira. Informazio gehiago: www.asicseternalrunning.com/